

# DOM HELDER CAMARA-RENTZAT NOBEL SARIA?

“Croissance des Jeunes Nations” aldizkariak dionez, Bakearen Nobel Saria eman dezaioten, Dom Helder Camara-ren izena emana izan da.

Zenbat adiskide brasildar eta frantsesen laguntza aldizkari onek egin duena, gutzid bidezkoa iruditzen zaigu. An eta emen, nun-nahi, berri onekin gizon-emakume asko poztuko dala, uste dugu.

Orain dala gutxi, mundu osoko luteranoen Federazioak, Pax Christi-k eta Suezialar demokrata diputadoek, ori bere eskatu zuten: Helder Camara-ri Sari ori eman zezaiotela, alegia.

Bidezkoa da. Helder Camara-k bakea maite du. Bakezaleekin da aren bihotza. Bakezaleen gogorkeria nahiko luke. Bere bizitza guzian zer besterik egin du? Behartsuen artean behartsu, gose diranen artean gose... baiña ez da orretan gelditu. Gose dagoenari ez dakioite gaurregun esan, bere ortan segi dezan; pobreen artean justizia eta zuzena itz egin behar dira; ez itzegin bakarrik, zuzentasuna egin dedin ahalegindu ere bai. Bai batera eta bai bestera!

Argi eta garbi gaitzetsi du, gaitzetsi behar zana. Gogorkerian aurka beti. Gobernatzeko era baten alde edo beste ohe baten alde, ez da sekula jarri. Totalitarismo eta ateismoaren aurka, gogor jokatu du; kristau bati dagokion bezala. Gogorkerian aurka egon da beti; baiña ez da isilik gelditu; mundu guztiaren aurrean salatu du Erri gosetien zorizaitza.

Dom Hender-en jokabidea maite dugu. Bere gotzai-jaregia erriaren jaregi egin duen jaun onekin egon gera beti. Beraz, Bakearen Nobel Saria emango balioke, asko poztuko gifañke.

Ba da besterik ere. Recife-tik artu ditugun azken albisteak nolabaitekoak bat dira. Erri xumearen alde zegoen militante asko preso sartu dute; apaizak ere asto beltzarenak ikusten ari dira. Momentu egokia litzake benetan, jauntxoakiaz eta diktaduraz beste egiteko, bakearen alde dagoen jaun baten izena, guzian aurrean “gizon-eredu” bezala altza ledin.

“Norbat litzeta baino mila aldiz nahiago dut bestek ni litzeta” —esan zuen Paris—en. Itz ederrak. Gizon onen inguruan, gizon onekin eta gizon onen esku dauden apaiz eta gizon-emakumeekin egunero egiten diran gogorkeriak ikusita, eder litzake Bakearen Nobel Saria jaun oni beroni ematea.

# MAURIA C BILDURRA...

Mauriac hil da. Eta neure barne muinetaraino, beste asko bezala, hontzara batek iharrai nau.

Mauriac albistaria istimatu dut, egia da: urte askotan barrena, «L'Express» eta «Figaro Littéraire»-n, oso gogoz irakurri ditut haren «Bloc-Notes» zorrotzak. Behin eta berri zopatu dut Mauriac katoliko aurrerazaleen eta ezkerterren bidea hartzen; eta hau pozzarri izan zit. 1930-etik 1965-arte gutxi gora behera, gaurkotasunari buruz, deskolonizazeari buruz, politik-ekin-tzari buruz, Mauriac-ek hartutako bideak beren buruz mintzo dira idazlearen alde. Ez dezagun ahantz, bestealde, ez Mauriac-en jatorrizko giroa ez Elizarena. Euskaldunok bereziki ez ditugu Nolanahi ahaztuko ordu larritan Mauriac gure alde agertu zela; eta hau egin ez barne-azusardia handia izan zuela.

Egia aitortzeko, ordea, ez da Mauriac politikaren heriotzak bortiz-kiarik dardaratu gaituena. Haren nobela ederrethan bizi den Mauriac olerkariak hunkitu bait gaitu sakon-kiarik.

Bai, jaunak François Mauriac olerkaria da Mauriac-eratan haundie-za. Ez teknikeriatan errotako idaz-le bat, ez azken nobismoaren bila abiatutako sasi-poeta bat, ez zozoko zurtu nahirik bitxikeriatan barrena joandako berriko bat. Ez. Egiazko olerkariak ez du istorio horien beharrik. Mauriac olerkaria noblethan da olerkari: liburutuan zehar, han eta hemen, behin eta berri, eta espanturik gabe, olergintzan ari dela esan ere gabe, inork ez be- zela sendi-arazi dizkigu pertsonare- kiko kupida eta zeru-lurrarekiko li- lura. Nik bederen Mauriac-en libu- ruak bukatzean, behin eta berri, azaldu ezinezko malenkonia batek harturik egin izan dut. Eta nik be- zala, nik uste, beste antitez.

Dohain hau izan da, dudarik ga- be, Nobel-Saria-ren kaka (1952).

Nik ez nituen orain dela gutxi ari ezagutzen Gironde-ko landa ba- kartiak. Ez zaizkit arrotz gertatu, halere; eta Mauriac-en orrialde zo- ragarrietan somatu bezala aurkitu ditut hemen: gozetan behe-laño urdinen aspian isilik, eguzkiaren le- henengo errainuetan nekez iratzar-

tzen ari... Eta Mauriac-ek oroitu nau.

Mauriac-en heriotzaren berri ikas- ten, argi-printzak bezala iragan du- te ene barnea nobelen oroitzape- nek: Genitrix, L'Agneau, Destins, Les Chemins de la Mer, Les An- ges Noirs, Un adolescent d'autre- fois, Ce qui était perdu, Plongées, La Fin de la Nuit; eta, batez Thé- rèse Desqueyroux eta Noeud de Vi- pères ahaztu-ezinak... Liburu bako- itzean, beti ere kutsu berberaz bai- na beti ere liferenteki, zoriotsu eta olerkibera batera izan nintzela ohar- tu dut. Ohore eta helburu haundia- gorik bila ote dezake idazlek?

Jacques Madaule-k oso edeki- zion orain dela urtebetetsu: «Egun batez, ezek ezin horretatik bazter- turik, guziok haurtzako lauso ar- gietan sendi genituen» zauskada haitik, ilun eta nahasi, azalduko zi- tuen François Mauriac-ek. Ez dut Bazadais delakoa ezagutzen (Baz- adais herriaren inguruko eskualdeari de- ritzuten «Bazadais»); eguzki betean za- paldurik, ez dut inoiz hatsartu oha- zabalaren usain. Baina Mauriac- i esker, bideskarik izkutuena berak, etxeko zaizkit... Eta —oraingo artikulua hau egitekoan bezala— berri Mauriac irakurtzen dudalarik, neure barne-muinetan beretan hunkitu- za naizela nabaitzen dut; gizon guziok bat egiten gaituen parte bar- ne horretan hunkitu, hain zuzen».

Egia hutsa. Berdin nioke ni ere. Zerk urrun dezake Mauriac haun- dia, beraz, gaurko mundutik? Zerk urrundu du dagoeneko, halere, gaz- teria berriatik? Ez da zaila eran- tzuten.

Mauriac-en kristau fedeak aurre- nik. Gaurko gazte askori zentzuga- be zaizkio bekatuaren kezak eta Jainkoaren egarria. Hots, askotan, hauteske dira Mauriac-en norkien azken marattila.

Mauriac-en gizarte-giroa bigar- renik. Bordale inguruko «château» ho- riek (mahasti bakoitzari «château» bat dagokio; «bordeaux» ardo-mota bat, beraz) eta bertako gora-behe- rak ez dira gureak. Uzta biltzeko etorri diren kanpotar langileak, er- di-baserritar erdi-aitonseme horien arteko herrak, bekaizkeriak eta di- ru-goseak, eta abar, arrotz dira gu- ru bizimoduan, urrun daude gund- dik, ez zaizkigu axola.

Mauriac-en «ikusle»-jokabidea az- kenik gaizki ikusia da. Hauxe da, beharbada, kritikarik gogorrena eta aspaldikoena. 1935-er geroztik, Gi- de-k moldatutako Idazle Erreboluzio- zaleen Biltzarretik; eta geroxeago Sartre gazteak 1939-an aurrez-aurre Mauriac-en kontra egin zuen olda- rralditik, Bordale-ko idazle famatu- idazle «burges»-tzat salatzen da. Alegia: oro har, ez duela zalantzan jarri, ar gure inguruko osoki kritikatu, gure soziedadea. Hori egin beha- rrean, psikologikierian eta olerkike- rian erori dela; Artea eta bizia, idazkintza eta erreboluzioa, bi gau- za desberdin balira bezala. Horrela jokatuz, «divertimento» gisa hartu du Mauriac-ek literatura, eta ez bu- rruka-tresnatzat. Hots, horrela joka- ztea komeni zaio burgesierari. Mau- riac, beraz, burgesiaren morroin gertatu da.

Bestaldekik ere, Mauriac-ek bere norkiak «barnetik» aztertuz, Jain- koaren jokoa egin du. Ez hau baka- rrik: kristau Morala onhurtuz, in- dartsuen jokoa egin du berri ere.

Honetan guzian egiazko den zer- bait aitortu beharra dago. Baina egia osoa ez dela ere esan daiteke, ene ustez. Batzuen iritziz (eta egun hauetan maiz entzun dugu) Mauriac nobelariaren ekarria bezin inpor- tantea izan da Mauriac albistaria- ren lana; eta lan hau, azkeneko ur- teetako ultra-gaullismoa kenduz ge- ro (Mauriac 85 urteetan hil da), helburu aurrerazaleen alde egin du- la esan behar da.

Mauriac ez zen sozialista. Hau ez zuen berak ukatzen. Eta 1969-an P. Dumazet-i aitortu zionez: «Marx nor den jakin uste dut; bainan ez dut inoiz irakurri». Joera baten sei- nale, dudarik gabe; eta intelektual aurrerazale batengan, hutsune eta hoben larri.

Horregatik esan dut haseran, eta bukatu aurretik berri esango, hitz- lauzko olerkaria dugula Mauriac- etan gorena.

Noiz izango dugu euskaldunok «Noeud de Vipères» edo «Genitrix» euskeraz irakurtzeko aukera?

Hauxe litzake, ene ustez, euskal- dunok Mauriac-ekiko ditugun zorrak kitatzeko biderik txalagarriena.

LARRESORO (1970-IX-1)

Danok dakigu, leengo mundua ta orain arteko balore asko, gure arte- an, krisisean daudela, zilipurdi- ka dabilazala... Eta danoi, leengo segurtasun galduta, ikaragarriko bildurra sartu zaigu barrenean. Ala- re, krisis onek ekarri dizkigu bere mesedeak, eta bat guzian alde- aldikoak —relatiotasuna, alegia—, konturatzeko izan da.

Krisis onetan bildur naiz danok —bai gurasoak, bai irakasleak, bai zuzendariak eta bai apaizak—, bi- de errezenetik ez ote degun jo. Gaitz edo oker egiteko bildurak erabat artu gaitu, eta geldierazi du- gu. Eita u da, nere ustez, gaurko gizonon erorbide ta gaizpiderik aundi- na ta kaltegarriena.

Egia da leengoak eta oraingoak ez dirala berdinak. Baita leengo askabide askok gaur ez dutela ba- lio ere. Baiña ordez leengo danak txartzat edo gutxituz botatzea, leengo guztiak ezbaian ipintzia... ez ote da, gero, geiegitxo? Eta bitartean, kezka ta kalteak geitzen geitzen, azten azten, dijoazkigu. Eta gu, negarti edo bildurti, begira... begiak ez ikustearen isten ez dituguen!

Zenbait unetara eldutakoan, gaitzari, «erten edo kerten», arpegia eman ber izaten zaio. Sendagi- leenak, gaixoak zer daukan ez da- kienean eta sumo txarrak ditue- nan, ebaki egiten du ia zer ote duen jakiteko. Zer bait egin eta eragin, ez geldi geldi begira egon, negarrez edo bildurti, gaixoa il arte.

Une txarrean gaude, baiña, nere iritziz, bi gauza argi ta garbi dau- de: bat, aalegiña gizonarentzat be- ti bearezkoa dala; beste, bein oiñarriak jarri ezkerro, jolas arauak erabaki ta onartu ezkerro, beti egin bear dirala: kontsekuenteak, itza- ren jabe, izan bear degula, alegia.

Aalegiña gizonarentzat —gatzea- rentzat, batez ere—, bearezkoa da- la, epaizkerik ere ez det egiten. Gi- zona beti bere burua gaintzeko egiña da, bai ikastalorretan, bai kiroletan, bai gogo bizitzan... Nik ez det inor ezagutzen amar ordu lan egin ondoren droga bearezcu dagoenik, ezta itzarpen eta ilu- sioz —goizeko izarrez—, beteri- ko gazterik hippy eran bizitzeko irrikaz ere. Gizonak zer baiten alde saiatu egin bear du. Eta saia de- din, guk, zaaragoak, erakulse ta arduradunok, bizitzaren ederra, gi- zaratearen bearrak, gogoaren ama- tsik zoragarrienak erakusti bear dizkiegu. Eta eskatu gogotik. Eta beartu bear danean. Eta eragin go- gor garrantzikoak diranean. Izan ere, bildurtu egiten gera. Bildurtu, marmarreta batzuegatik edo zaar- tzat, «antigualekotzat», artuko gaitz- tuzelakoan. Bildurtu, oraingo oke- rrak eta gaitzak egunen batean ar- pegira botako ote dizkiguten. Bil- durtu, bai, lan audiegia artuko ote degun. Betei da errezena uztea, begiak istea, besteie errua erantsi- tzea...

Eta emandako itzaren jabe izan, lojikoak, kontsekuenteak izan. Gu- rasoek ez diete beren umei uzten ikasi edo ez, ua ikasi edo beste ori. Zergaitik, orduan, utzi mul- koaren eskuetan zenbait aukerabi- de? Guraso ta azlariak ez dute uzten mutilaren gogoko edukazioz ari ala ez, etxeko diruak erabaki ala ez, lanean asi ala ez. Orduan, erabat, mutilen mende laga al li- tezke norberaren ezibek, jolasak, adiskideak, politika, religioa? Osoki epaitzeko zer komeni zaien bai al daukate buru-biotzik? Bardin ote da gero mundu onetan ogei edo igeruogei urte bizitzea? Zillegi al da berdin nekazaren amasei urteko mul- ti edo nekazaren iritziak eta ez- kondu edo jakintsu baten iritziak? Edozein mukizuren religio iritziak apaizarenak aña balio al lezakete? Gaur jende askok kristautasuna epaitzen duten bezin erraz eta arin apaizak emango balituzte zer bait iritzi, ai zer iskanbillak! Orduan, beste egi gaitzen onartzen ez di- tugun jokabideak, zergaitik onartu bear ditugu alor bana batzuetan? Gizona osoa da. Eta gizonen zati ta almen batzuek besteekin osatzen dira. Eta ez da zuzena eziketa-alde batzueti oparo ematen zaiena bes- teie ukatzea. Ezta alderantziz ere. Guzti guztia —ekonomia ta politi- ka, eziketa ta jakintza, kirolak eta elijioa ere bai—, guztiak, gizar- ten ezi ta azi egiten dira. Eman eta

(4'gn orrian jarraitzen du)

# Gauzak garbi eta jokabideak garbiago

Euskeria maite duana ez diteke ibil, hodel-arteko hizkera baten ames- tsetan edo horrelako zerbaitean bila. Euskeria, bere hizkuntza delako maite duanik, Euskeria maite behar du; eta ez, horren babesean beste zenbait gauza.

Euskeraren alde ahalegintzen danak; hau da, Euskeria beragatik egi- ñahalak egiten ari danak, ez deza- ke hartu beste zerbaite tarako bide edo tresnatzat.

Euskeria maite duanik, hizkuntza hori darabilkian herria ere maite behar du. Biak ondo loturik: euskeria eta herria.

Biekiko jokabide garbia eskatzen du, noski, benetako maitasun ho- rrek. Ez inolako apzikeriarik, ez iru- zurrik.

Eta urrena, begirunea. Itzal hau- dia hizkuntzari, ez bait da bidezko, ezta zuzen ere, hizkuntza batekin jolas egitea: haur-jostailu bat ba- liz litzetza, hau kendu eta hura jan- tzi, lehengo moztu edo puskatu eta berria ipini, e. a. «Hizkuntzaren egi daiteke ibil jostaketan» La- fitte jakintsua dionez.

Eta begirune handia herriari. Astin- du eta zukueto ote genezake he- rria, batetik, «proletarioen diktadu- rak bezala, eta bestetik, «kapitalis- ten diktadurak» zuputzen dudu be- zela? Ez bata eta ez beste! Biek morrontzarako nahi dute herria, jauntxo gutxi batzuk guzian jaun- da jabe diralarik. Ez holakorik!

Begirunea elkarrentzat. Gure ar- tean ez daukaguna. Gehienok ixli- ka eta izkutuka gabilta; baiña bes- teak agerian eta ozkeni eta gogor salatu. Ez dago eskubiderik!

Honen gogoko ez danean, bereala deituta bat erantsi, zuzen baldin badator eta ez badator, baldin ba- dagokio eta ez badagokio. Hari atsegin etzaionean, berri, beste era batekoak.

Izen bat, deituta bat, txartel bat ez... eta... bazterreria hori! Hone- laxe gabilta. Eta berri esango dut: ez dago eskubiderik!

Zuri atsegin etzaionean, «atzerako- i» dala... «apaiz-arteko edo eliz- kutsuko» dala... «batasunaren kon- trakoa» dala... «eusko-alderdieren eragiñera» dabilela... eta muzin egin. Jokabide garbia al da? Ez eta ez!

Eta bitartean, nor-bera zer danik azaldu gabe gelditu. Txantxo-jan- tziak eta begitarte edo aurpegieta- ko estalgarriak botatzeko garaia du- gu. Bakoitzak bere aurpegia ager- tzeiko ordua, alegia.

Mitxelena'k argi eta garbi azal- du zituan hizkuntzaren, kulturaren eta herriaren arteko loturak eta ho- riekioko begirune-beharrak. Gaurko Marx'darrek ez dut pentsaera hori dutenik uste; eta gure arteko «mar- sista» usteokok gutxiago.

Eta bitartean, Mitxelena'ren ira- kasaldien ondoren, ausardia behar da, honako hau esateko: «Bai, garbi dago: iritzi horiek bete-betean mar- sistak dira Mitxelena gurekin dago».

Euskeria eta herria maite dituz- tenek, ezin holakorik esan; bakar- bakarrik, beste zerbaitein bila da- biltzanek esan behar.

«Marsismoa» moda-modan jarri da, hain zuzen ere, gure artean. Baiña nola? Orain arte ez-ezagun

zan, itxurak diranez. Orainxe hasi ezagutzen eta... zeruko mana mi- rarritsua dala irudit!

Bitartean ez dira oharzten, orain 40 urteko gauzak diranik. Beste non- nahi bolobolo eta barra-barra za- baldi ziran hitzak, jokabideak, iritzi- ak, orainxe darabizite askok gauza berrietat! Beraiak asmatutako gauzak balira bezala!

Garai onean! Txekoslovakia as- katunaren eta «marsismoaren» izenean berriro zanpatu ondoren; «marsismo» zaharra gailditu eta bide berristan barrena eraman nahi zuten Txekoslovakia'rrak zearo oi- peratu dituzten garai hontan, gure artean orainxe arkitu gauza be- rritzat.

Besteak beste, Marx'darren joka- bide bat ari da nagusitzen gure ar- tean: goikoak, aurrekoak eta alda- menekoak, izen txarrez bezutzea, batetik. Eta mitu berriak sortzea bestetik: «marsismoa»... «langille- herria»... «bata suna»... «gatzek»... e. a.

Azkenik, berri, euskaldunak sa- kabanatu, batzuk bestean aurka jar- rierazi: «mito-giro» hontan sartzen ez dana, halako edo honelako da... «batusunaren kontrakoa»... «gatz- ten aurkako»... «zaharra»... «burge- sa»... e. a. dala esanaz.

Danak txartu-erazi nahi honela, gero batzuk bestean aurka burru- katu gaitzen, elkarrengandik eten eta urrunduko gaitzen.

Gabiltzan danok egiaz eta joka dezagun garbi. Egiaz eta jokabide garbiak dute azken-hitza.

G. GARMENDIA ESNAOLA